

Ikastola-Eguna

Aurten, **Ikastola-Eguna ekainaren 6an** ospatuko dugu eta egun horretako **bazkarirako eta ondorengo festarako txartelak eskuratzeko salgai izango dituzue:**

- Agerialdeko jolastokian **gaur, maiatzak 29, 16:30-17:00 bitarte.**

*Talde bat osatzen duten pertsonen kopuruaren berri eman ahal izango da, elkarrekin eseri ahal izateko, frontoian bertan 12:00ak arte. Ordu horren ondoren iristen direnek ez dute bermatuta izango elkarrekin eseri ahal izatea.

Bazkal ondoren ikasleen musika emanaldiak izango ditugu arratsaldea girotzeko.



Egitaraua

9:45: LH1-2-3 jolasak Ikastolan.

11:00-12:00: DBHko ikasleen erakusketa Ikastolako laborategian.

11:00: LH4-5-6 jolasak Ikastolan.

12:15: DBHko ikasleen jolasak Ikastolan.

12:30: HHko musika saioa (Mikel Laboa Plazan eta txarra egingo balu Ikastolako frontoian).

14:00: Bazkaria frontoian.

15:30: LH6ko ikasleen kantaldia.

16:30-18:45: Ostolaza eta Narbaiza trikitilariak

Haur eskolako erakusketa ikusgai egongo da ekainaren 5etik 12ra.

Kilometroetako salmenta postua

Ikastola egunean Kilometroetako arroparen salmenta postua jarriko da 12:00etatik 14:00ak bitarte. Postuan jartzeko 2 bolondres behar dira. Interesa izan ezker, usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz jakinarazi.

Animatu!




kilometroak

Ibilian-ibilian, buelta!

Lazkao 2026

Ekaineko ordutegia

Ekainaren 1etik 19ra HHko (3 eta 6 urte bitarte) eta LHko ikasleek eskolak goizez bakarrik izango dituzte, alegia, 9:00etatik 12:30era arte. DBH-ko ikasleek aldiz, ekainaren 1etik 11ra (biak barne) lanaldi jarraia izango dute, 8:25-14:30, eta ekainaren 12tik 19ra 8:25etik 12:30era.



Jangela zerbitzua

Hona hemen ekainean jangelako bazkaldarrek izango duten [menua](#) eta baita [menu berezia](#) behar duten bazkaldarrena ere.



Ibilaldia

Igande honetan, maiatzak 31, Bilbon, Ibilaldia ospatuko da. Antolatzailea KIRIKIÑO ikastola da.

Pausoz pauso, elkarrekin egingo dugu bidea.

HIRI KIRIBILI BIL!



Irakurle gazte(txo)en topaketa

Astlehenean, ekainak 1, 16:00etan Sutegi Liburutegian, IRAKURLE GAZTE(TXO)EN TOPAKETA. Azken urteetan Sutegi Liburutegian antolatzen dituen IRAKURKETA-SOLASALDIETAN parte hartu dutenei, eta gaiarekiko interesa dutenei zuzendua. LH 4tik gorakoentzat.

Bidelagun: Yolanda Arrieta.

Izen-ematea: Sutegi Liburutegian.

Iraupena: ordu bete inguru. [Hormairudia](#)



Haurren herri kontseilua proiektua


Ikasturte hasieran LH4ko ikasleok **Haurren Herri Kontseilu** batean parte hartzeko proposamena jaso genuen. Proiektu honen helburua Usurbil hobeago bat eraikitzea izan da, eta horretarako hilabetean behin elkartu gara Enara eta Jonerekin, egitasmoa aurrera eramateko.

Ikasturte osoan zehar lanean aritu ondoren, orain Udaregi Ikastola-ko ikasleen eta familien laguntza behar dugu azken proiektua gauzatzeko.

Horretarako, datorren astean, **ekainaren 1etik 5era, mahai bana** jarriko dugu **ikastolako 2. eta 3. solairuetan**, etxean erabiltzen ez dituzuen edo behar ez dituzuen **mahai-jolasak biltzen joateko**.

Bildutako mahai-jolasak herrian kokatuko den armairu batean gordeko dira, herritar guztiek erabili ahal izateko moduan. Horregatik, garrantzitsua izango da jokoak egoera onean egotea.

Aurrez eskerrik asko proiektu hau aurrera ateratzeko emango duzuen laguntzagatik.



Ekainaren 13an, Euskaltzaleon Martxa Iruñean

Euskaltzaleon martxa lelopean, ekainaren 13an Iruñako kaleak betetzeko mobilizazio jendetsua antolatzen ari gara euskalginezaren Kontseilua osatzen dugun erabileak.

Gero eta gehiago dira euskararen etorkizunaren gaineko kezka eta larritasuna adierazten dituzten datuak eta ikerketak,, eta zailtasun horiei erantsi behar zaie euskararen biziberritzearen aurkako oldarraldi antolatu bat.

Hala ere, sinetsita gaude posible dela euskararen biziberritzeari bultzada ematea, Pizkunde berri bat eragitea, eta horretarako ezinbestekoa dela euskaltzaletasunaren giharra indartzea. Horretara dator ekainaren 13ko mobilizazioa, euskaltzaleok antolatzera, Euskaraz bizitzeko behar den dena aldarrikatzera.

Martxa arratsaldean egingo dugu. 17:00etan Iruñako hiru puntu ezberdinetan bilduko dira herritarrak: Antoniutti, Runako Parkea eta Askatasun Enparantza. Puntu hauetatik Iruñako kaleak harrotasunez beteko dituzten hiru zutabeak abiatuko dira. Zutabeek Gazteluko Plazan bat egingo dute eta bertan egingo da akitaldi politikoa, amaiera berezi bat emanaz.

Zutabeetako bakoitzak euskarak behar duen Pizkunderako ezinbestekoa diren hiru oinarrietako bana ordezkatzeko du: Ofizialtasun osoa, Jauzia hizkuntza politikoetan eta Euskaltzaletasuna.

Bertso eskola 2026/27

Aurten ere, 2026/27 ikasturterako guraso talde baten eskutik, bertsolaritza eskolak antolatuko dira LH3tik DBH4ra.

Noiz: astelehenero Udarregi eraikinean 12:30etik-13:30era eta 13:30etik 14:30era (Urritik maiatzera)

Urte osoko kuota: 65 euro

Bertsolaria: Lierni Rekondo

Kontaktua: 608 768 539 [Hormairudia](#)

HAUR HEZKUNTZA

Ikastola eguna

Dakizuen bezala, ekainaren 6an Ikastolaren eguna ospatuko dugu. Eguerdiko 12:30tan HHkook gure emanaldia eskainiko dugu Mikel Laboa plazan (eguraldi txarra egingo balu, Ikastolako frontoian egingo genuke gure emanaldia eta haurrak gure geletan bertan jasoko genituzke).



Haurrak 12:15ean jasoko ditugu herriko guneha honela jantzita:

- HH3koak, kamiseta TXURIAREKIN: Udaletxe aurreko plazan
- HH4koak, kamiseta URDINAREKIN: Sutegiko atarian (aterpean)
- HH5ekoak, kamiseta HORIAREKIN: Laboral kutxaren ondoan.

Zalantzarik baduzue, tutoreei galdetu.

Baso Eskola

Aste honetan baso-eskolako saioak amaitu ditugu. Hori horrela izanda, eskertuko genizueke jantziak ondo garbituta, lehortuta eta poltsa batean sartuta tutoreari egun hauetan itzultzea:

- HH3: ekainaren 2an, asteartea.
- HH4: ekainaren 5ean, ostirala.
- HH5: ekainaren 3an, asteazkena.

Zuen seme-alaben jantzia puskatuta baldin badago, **jakinarazi irakasleari mesedez, edo ohar bat jarri poltsari!**



LEHEN HEZKUNTZA

Ikastola eguneko jolasak

Dakizuen bezala, ekainaren 6an, ikastola eguna ospatuko dugu. Goizean zehar ikasleen jolasak izango ditugu. Ikasleek ikastolako sarrera nagusira (errepide aldera) agertu beharko dute ondorengo orduan:



1., 2. eta 3. mailako ikasleak 9:30ean sarrera nagusian.

4., 5. eta 6. mailako ikasleak 10:45etan sarrera nagusian.

1, 2 eta 3. mailako ikasleak amaitzean, 10:45etan kiroldegi aurrean jasoko dituzue.

Bestetik, egokitu zaien zenbakiaren arabera (asteaz zehar tutoreek jakinaraziko die) koloredun kamisetarekin etortzera gonbidatzen ditugu:

1 zenbakia edo taldea: kamiseta beltza.

2 zenbakia edo taldea: kamiseta txuria.

3 zenbakia edo taldea: kamiseta urdina.

4 zenbakia edo taldea: kamiseta berdea.

LH 4ko familiei zuzenduta: LIBURUTRUK 2026/2027

ZER DA LIBURUTRUK?

Sistema honen helbururik nagusia testu-liburuak ahal den ikasturte gehienetan berrerabiltzea da. Hitz Aho Guraso Elkartea eta Ikastolaren artean koordinatuz egiten da. Ikastola liburuak eskatu, familiei kobratu eta ekaineko azken egunean liburuak jasotzeaz arduratzen da. Bestetik, Hitz Aho Guraso Elkartea liburuak sailkatzeaz arduratzen da. Sistema hori erabiltzeko arrazoiak:

Guraso elkartea



- 1- Seme-alaben heziketa hobetzea: zenbait balore garatzen lagunduko diegu; besteekiko elkartasuna, guztien gauzak zaintzeko joera, komunitatearekiko lotura, kontsumo arduratsua eta inguruarekiko errespetua,...
- 2- Ekonomikoa: parte hartzen duten familiek liburuetan gutxiago gastatuko dute. Berrerabilgarriak diren liburuen zati bat ordaintzen delako.
- 3- Ekologikoa: liburuak berrerabiltzeak paperaren kontsumoa eta sortutako zaborra gutxitzen du.

Sistema hori LH5. mailatik gorako ikasleentzat da. Beraz, **ikasturte honetan LH4. mailan dagoen norbaitek ez balu parte hartu nahi, usurbil@ikastola.eus helbidera mezua idatzi beharko luke. Horretarako epea ekainaren 12an amaitzen da. Gainontzeko mailetakoen kasuan, mezua aldaketarik balego soilik idatziko lukete.**

Gogoratu, behin Liburutruken sartuz gero ezingo dela irten, bestela, ordura arte baliatutako hobarien itzulketa egin beharko litzaioke ikastolari.

Antolaketa horren baitan, hurrengo ikasturteen amaieran, liburuak Ikastolan utzi beharko dituzue eta hurrengo ikasturteetako liburuak eskuratzeaz Ikastola eta HITZ-AHO arduratuko dira. **Berrerabilgarriak diren liburu GUZTIAK egoera onean itzuli behar direla gogorarazten da, bestela, falta diren liburuak kobratu egingo dira.**

Ekainaren 13rako parte hartuko ez duela adierazten ez duen familia guztiei, **60 €-ko fidantza kobratuko zaie ekainaren 16an** eta gerora ez zaie bueltatuko, ez duela parte hartu nahi esaten badu ere.

LH 4ko Irteera eta kobrantza

Ekainak 17-18 "Piraten Etxera" egingo dugun irteeraren hirugarren eta azken kobrantza ekainaren 1ean, astelehena, egingo da. **31,75€.**



LH6. mailako familientzat oharra

Datorren ikasturtean DBH 1. mailan egongo den ikasle bakoitzak Chromebook bat erosi behar du. Anai-arreba zaharrago baten chromebooka baldin baduzue berrerabili dezakezue, baina Google lizentzia ordaindu beharko da eta, kontutan izan, bermea 4 urtekoa izaten dela eta amaituta izango dutela. Berrerabili nahi den gailuak ikastolak eskaintzen dituen chromebook-aren ezaugarri berdinak izan beharko ditu.



Erosketa online egin beharko duzue Xenon-ek horretarako prestatu duen webgunean. Erosketa prozesuaren azalpen osoa [hemen](#) duzue. Ikastetxearen kodea **UI2605** da. **Eskaera egiteko azken eguna maiatzaren 31 da.** Zalantzarik baduzue, jar zaitezte ikastolarekin harremanetan eta lagunduko dizuegu.

BIGARREN HEZKUNTZA

Konpetentzia astea

Maiatzaren 28tik ekainaren 2ra DBHko ikasleek konpetentzien astea izango dute.



Ekaineko ordutegia

Ekainera sartzeraz goaz eta, horrekin batera, ordutegian aldaketa batzuk izango direla gogorarazi nahi dizuegu:

Ekainaren 1etik 11ra bitartean, ikasleek lanaldi jarraitua izango dute: 8:25etik 14:30era.

Ekainaren 12tik 19ra bitartean, saioak 12:30ean amaituko dira.

